

BALIABIDEAK



EGILEAK:
Ekaitz Salaberria
Mikel Moriana
Izar Susperregi
Irati Ugalde

Enpresa bat irekitzerakoan baliabide mota ezberdinak hartu behar dira kontuan. Baliabide horien artean, baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza baliabideak bereizten dira.

Baliabide fisikoei dagokienez, produktuak fabrikatzeko instalazioak, bulegoak, ibilgailuak, makinak, sistema informatikoak, salmentarako puntuak eta banaketa sarea bereizten dira. Gure kasuan baliabide fisiko gutxi beharko ditugu, izan ere, internetez salduko dugu gure produktua eta denda fisikotan saltzerakoan beste denda batzuetan salduko dugu, hau da, beste dendekin hitz egin eta bertan salduko ditugu gure produktuak. Hala ere, kontuan hartu behar da gestioak egin beharko ditugula eta horretarako bulegoak edukitzea ondo egongo litzatekela, beraz, baliabide gutxi behar diren arren, oinarritzkoak beharko ditugu.

Bestalde, baliabide intelektualei dagokionez, honako hauek aurki ditzakegu: markak, jabegoa, ezagutza, patenteak, egile-eskubideak, elkarteak eta bezeroen datu-baseak. Marka bat sortuko dugu gure produktua munduan zehar ezaguna egin dadin. Horretaz gain, argi dugu patente bat sortuko dugula kompetentziarik ez edukitzeko eta merkatuaren eta prezioen kontrola guk edukitzeko inolako presiorik gabe. Jendeak gure egile-eskubideak errespetatu beharko ditu eta ezin izango du plagiorik egin. Azkenik, aipagarria da bezeroen datu pertsonalak babesteko politika zorrotza jarraituko dugula.

Giza-baliabideen kasuan, sormena, ezagutza eta gaitasun komunikatiboa hartu behar dira kontuan. Hauek, gure taldekideengan beharrezkoak diren ezaugarriak dira eta horregatik lantzen saiatuko gara. Sormena lantzeko ideiarekin, egunero gure ideia berritzen saiatuko gara eta horrela produktua hobetuko dugu. Ezagutzaren alderdia, beharrezko kurtsoak egingo ditugu enpresa bat aurrera nola ateratzen den jakiteko eta zalantzak ditugunean badakien jendearengana joko dugu. Bukatzeko gaitasun komunikatiboa landu beharko dugu, baina uste dugu gure taldean garatua dugun zerbait dela, gure artean komunikazio ona dagoelako, hala ere, bezeroekiko komunikazioa beharrezkoa denez, baliteke hobekuntza batzuk egin behar izatea, bezeroaren erraztasunak bilatzeko.

Finantza baliabideen aldetik, hainbat aspektu dira kontuan hartu beharrekoak: Eskudirua, kreditu lineak, soldaten ordainketak, bestelako erosketak eta negozioa zabaltzeko inbertsioak. Uste dugu, finantza baliabideak gure enpresarentzako garrantzitsuak izan daitezkeela, izan ere, enpresa handitzeko ahaleginak egingo ditugu. Horretaz gain, hasieran enpresa bat irekitzea eta mantentzeak kostu handiak dakartzanez, argi dago *defizita* ez izateko eta ahal den neurrian finantzak orekatuak mantentzeko, ezin izango ditugula baliabide horien hainbat puntu bete hasieratik.

Oinarrizko baliabide hauetaz gain, beste baliabide mota batzuk bereizten dira, horien artean, externalizazioa, kostu murrizketak, hobetzeko aukera, iraunkortasuna eta ordezteko aukera.

Externalizazioa: Funtsezko baliabide bat kanpoko enpresak batek gara dezake kostuak merkatzeko edo enpresa baten esfortzuak balio erantsi handiagoa eskain dezakeen beste arlo batzuetan kontzentratzeko. Adibidez, telefonia mugikorreko enpresek espezializatutako enpresen esku uzten dute telefonoen fabrikazioa.

Kostuak murriztea: Funtsezko baliabideek enpresa baten kostuetan duten eragina minimizatzea. Batzuetan, merkatua hobeto segmentatzeak edo gure baliabideak hobeto kudeatzeak kostuak murrizteko aukera ematen digute.

Hobetzeko aukera: Produktu edo zerbitzu bat perfektionatzeko gaitasuna. Edozein baliabide hobetu egin daitekeen ustetik abiatuta, honako galdera egin behar dugu: zenbateraino interesatzen zaigu enpresa edo organizazio baten funtsezko baliabideetan hobekuntzak egitea? Hobekuntza jarraituen adibide dira, esaterako, *Google* eta *Facebook*; etengabe egiten dituzte berrikuntzak, gorenean mantentzeko helburuz.

Iraunkortasuna: Enpresa baten funtsezko baliabideak ordeztuak izan ahal behar dira enpresak bere jarduerari eutsi nahi badio. Adibidez, arrantzaren arloan

diharduen enpresa baten kasuan, arrain-sardak berriz jartzeko denbora eman behar du, bestela, iraungitze-data izango luke negozio horrek.

Ordezteko aukera: Funtsezko baliabideak proiektu baten funtsa dira; beraz, ezin izan beharko lukete ordeztuak izan. Ordezgarriak izatekotan, edo ez ziren benetan funtsezko baliabideak edo negozio-eredua aldatu egin da.